

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektuan, funtsezko jardueretan egin behar ditugun jardueretatik, bi egongo lirateke gure esku. Hiru jarduera mota daude: produkzioa (produktuak diseinatzea, ekoiztea eta entregatzea), arazoak konpontzea eta plataformako edo sareko jarduerak (plataforma teknologikoak kudeatzea, mantentzea eta sustatzea).

Produkzioaz, ekoizleak arduratuko dira, hau da, gure aplikazioan produktuak saltzen jarriko dituzten pertsonak izango dira produktuak ekoitzi eta entregatuko dituztenak. Arazoak konpontzeaz, gu arduratuko gara, aplikazioak arazo bat izaten badu, adibidez, ekoizleei beraien produktuak jartzen uzten ez badie. Baina arazoa produktuaren kalitatearen, prezioaren... inguruan izaten bada, ekoizlearen ardura izango da hori konpontzea. Azkenik, plataformako edo sareko jarduera gure esku egongo da, hortan oinarritzen baita gure proiektua. Gure lana izango da plataforma hau sortu, kudeatu, mantendu eta sustatzea.